

noaua



Edorta Agirre: “Orain azkar batean jaten dugu, bakartuta, eskuko telefonoari begira...”

“Usurbil FT eta Usurbil KE klubek arteko harremanak sendotu nahian antolatuta dugu Garagardo Azoka”

“Gizartea eraldatzeko tresna izatea nahi dugu turismoa”



Lodosako Pikillo piperra



Piperra 3 eratan eska daiteke:

- Gordinik
- Erreta eta garbia 400gr-ko poltsetan
- Izozteko 200 gr-ko poltsetan

*Najerano edo Piko de Mendavia nahi badituzu, galde iezaguzu.

Eskariak 2022/10/15 arte jasoko dira.

www.alkartasuna.eus

Alkartasuna Kooperatiban:
Atallu industrialdea 26, Usurbil
943 361 114 eta 630 938 027
alkartasuna@usurbil.com

Lanaren Etorkizuna
hobetzen, Orain.

Pertsonen alde eginez.

Sartu etorkizunaeraikiz.eus webgunean eta ikusi gipuzkoarrok zer egiten ari garen gure etorkizunaren alde.

Gipuzkoako
Foru Aldundia



ETORKIZUNA
ORAIN



Albisteak iruditan

Orioko nesken arraun taldearen trainerua eta hamabi txapelak Urbilen topatuko dituzue

Urbilek Orioko emakumezkoen taldea babesten du. Traineru hau Euskotren Ligako eta Kontxako Banderako irabazlea izan da denboraldi honetan. Txalupaz gain, aurten lortutako 12 banderak Urbilgo merkataritza-gunean dituzue ikusgai.

Urbilek, Origen-Jatorria proiektuaren baitan, urteak daramatza Orio Arraunketa Elkarteko emakumezkoen taldea eta honen Berdin Berdinak kirol inklusiboko proiektua babesten, eta horregatik, kanpaina berezia prestatu du udazken hasierarako. Egunotan horiz tindatuta egon da merkataritza-gunea. Eta pasa den larunbatean, arraunlari taldea Urbilen izan zen, zaletuen gozamenerako.



Urbilek Orio arraun taldearen 5 kamiseta zozkatu ditu Instagrameko bere profilean.

Laburrean

Urriaren 15a, 1955eko kintoen eguna

1955eko kintoek egunpasa egingo dute urriaren 15ean Oñatin. Bertan, Artzain Eskola (Arantzazun) eta Unibertsitatea bisitatuko dituzte. Ondoren, bazkaria Soraluze jatetxean izango da. Izena emateko 675 006 445 (Maribi) telefono zenbakira deitu urriak 10 baino lehen.

1952an jaiotako en bazkaria, urriaren 22an

Lukainkategi jatetxean ospatuko dute urriaren 22an, 1952an jaiotako en topaketa, bazkari eder baten bueltan. Izena emateko epea urriaren 15era bitarte zabalik izango dute. Apuntatzeko deitu 620 516 715 telefono zenbakira (Javier).

Urriaren 25ean, literatura topaketa Sutegin

Ana Merino herrikideak zuzenduriko solasaldia iragarri du Sutegi udal liburutegiari urriaren 25ean. "Los extraños" liburua aztertuko dute. Hitzordura egilea, Jon Bilbao idazlea gonbidatuko dute. Solasaldi honi begira, liburuaren aleak eskuragarri dituzue udal liburutegian.

noaúa

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaúa.eu ||| www.noaúa.eu
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Disenua: Erroit S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaúa.eu

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaúa.eu



Gipuzkoako Foru Aldundia





Alazne Arruti

Zer da energia zuretzat?

Energia nonahi topa dezakegu. Energia, bizitza bera da. Janaria eta eguzkia. Haizea eta ura. Zura, lastoa eta ikatza. Baina tamalez, hauen kontsumo beharra ere zaildu dugu beste hainbat gauza bezalaxe, gure ekintza eta gaitasunen bilakaeraren arabera. Elektrizitatea sortzeko, baliabide naturalak usiatzen ditugu. Auto ilarak elikatzeke, gasolina eta gasolioa behar ditugu nagusiki. Eta gutxi balitz, guztia, hari gabekoa eta bateriaduna bilakatzen ari gara. Eta aizue, ez da zaila ulertzen bizirauteko etengabe hasi behar duen sistema bat, ez dela bateragarria mugatutako baliabideak dituen planeta batean. Beraz, hortxe daukagu erronka potoloena, gure beharrak, Lurraren ahalmenera egokitu beharrean gaude. Eta horretarako aukera bakarra dago, deshazkundera.

Hala eta guztiz, energia herritarrentzat gauza arrotza dela dirudi. Ez gara gai, hedabideen mezu kontraesankorrek xehatu eta gure fakturretan gertatzen ari dena ulertzeko eta ez da harritzekoa. Egunetik egunera sortzen baita zerbait berria eta espikatzen zaila.

Beraz gaurkoan, merkatu elektriko osoa azaltzea gauza makala ez denez, Egune-ko Merkatuaren gorabeherak



“Lurraren ahalmenera egokitu beharrean gaude. Eta horretarako aukera bakarra dago, deshazkundera”.

ALAZNE ARRUTI

“Eta orduan zer egin dezakegu? Hasteko, gure kontsumoa ezagutu eta zentzuz kontsumitu. Bestetik, elkarrekin batu, taldean injustiziei aurre egiteko”

azaltzen saiatuko naiz. Badakizue merkatu honetan, aurreko egunean hurrengo eguneko ordu bakoitzean energiak izango duen prezioa finkatzen dela? Egunero, orduz ordu, eskaintza eta eskaeraren gurutzatze bat ematen da horretarako. Baina badakizue zer den bitxia? Estatu mailan, 1997tik eredu marjinalista darabilgula eta beraz, orduero, saltzen den azken energiaren prezioak finkatzen duela gainerako energiaren prezioa. Nola?

Demagun 5 lagun elkartu eta merkatura goazela tomateak erostera. Bakoitzak argi du,

gehienez zein prezio ordaintzeko prest dagoen eta 3, 10, 25, 40 eta 60 euro ordainduko dutela esaten diote bitartekariari. Gaurkoan, soilik 3 tomate daudela dirudi. Nekazarietatik lehenak 3 euro, hurrenak 6 euro eta azkenak 25 euroko eskaintza egiten du, eta azken tomatea 25 eurotan ordaindu denez, hau baina gutxiago ordaintzeko prest zeuden lagunak, ez dute tomaterik eskuratuko. Aldiz, gehiago ordaintzeko prest zeudenak, 25 euro ordainduko dute eta horrenbestez, nekazari guztiek tomate bakoitzagatik 25 euro jasoko dituzte.

Ze trikimailu darabiltzate handienek? Merkatu elektrikoak energiaren kWh unitate bakoitza, berdintzat hartzen du. Eta gainera, ekoizle bakoitzak, nahi duen prezioa jarri diezaioke bere sorkuntzari. Legez ez dago inongo mugarik izan dituzten kostuen eta eskaini dezaketen prezioaren artean. Muga bakarra, merkatuari be-

rari ezartzen zaio, eta iaz 0 eta +180 euro/MWh-an zebilena, -500 eta +3000 euro artera egokitu zuten. Beraz gure merkatua, Europako en mailara eramatea erabaki zutenetik, inoizko preziorik altuenak pairatzen ari gara.

Eta noski, honetan Errusia eta Ukrainaren arteko gatazkak eragin handia izango du, ezta? Ba, gasarekiko dependentzia handia dugunez, ezinbestekoa da, bai. Baina badakizue zer den bitxia? Hilabete hauetan, preziorik handiena markatu duen teknologietako bat, hidroelektrikoa izan dela. Izan ere gas garestia erre behar dutenek, zentral hauek ere jabetzan edo lagun dituztenez, gure beharrak aurreikusi ditzakete eta gasaren prezioan eskaini dezakete gu guztiona den uraren bitarteko ekoizpena. Legeak dio, merkatuko agentek ezin dutela elkarrekin hitz egin, baina tira, musean zabilzatenok badakizue beste modu batzuetan ere hitz egin daitekeela, ezta?

Eta orduan zer egin dezakegu? Hasteko, gure kontsumoa ezagutu eta zentzuz kontsumitu. Bestetik, elkarrekin batu, taldean injustiziei aurre egiteko. Eta bestetik, energia gure egin, Energia Komunitateak baliatu eta geure beharrak, geure baliabideen bitartez asetzen hasi.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

Komikia



“Geroz eta helduagoa den gizartean, familiak geroz eta txikiagoak dira”

Hiru urte luze forma hartzen aritu den Txirikorda proiektua azken txanpan sartu da, eta jada interesa duten guztiak aurre izen-ematea egin dezakete udaleko webgunearen bitartez. Proiektuaren nondik norakoak ezagutzeko jardunaldiak ospatu zituzten duela bi aste. Lehen saioan, Matiazaleak eta Hernaniko auzozaintza proiektuak aurkeztu zituzten Txirikordarekin batera. Belaunaldi arteko esperientziak gertutik ezagutzeko aukera paregabea.

Matiazaleak esperientzia

Matia Fundazioak Matiazaleak esperientziak ekarri zituen mahai gainera. Geroz eta helduagoa den gizartean, familiak ere geroz eta txikiagoak dira, eta ondorioz, belaunaldi arteko arrakala geroz eta handiagoa da. “Duela 20 urte, ez dago atzerago joan beharrik, familiak handiagoak ziren orain baino. 80 urte atzera egiten badugu zer esanik ez. Gure aitona-amonei haien umetako familia argazkiak eskatu besterik ez dago horretaz jabetzeko”, esan zuen hizlariak. Ondorioz,



Matia Fundazioaren Matiazaleak esperientzia, Hernaniko udal egitasmoa eta Usurbilgo Txirikorda hizpide izan zituzten iraila amaieran Potxoenean.

MATIA FUNDAZIOA

“Belaunaldien arteko harremanak hoztu egin dira”

belaunaldi arteko harremanak ere aldatu egin dira, eta geroz eta urrunago egiten zaizkigu beste belaunaldiak. Hoztu egin dira harremanak, nolabait.

Matiazaleek joera hau apurte eta esperientziak “probokatzeko” dituzte belaunaldien arteko hartuemanak bultzatzeko. “Probokatu hitza erabiltzen dugu, nahita, modu naturalean gertatzen ez diren harremanak direlako askotan, eta hori natural bilaka dadin, askotariko esperientziak antolatzen ditugu”, jakinarazi zuten Matiazaleek. Ikastolekin harreman zuzena

dute eta horrek esperientzia anitzak osatzeko aukera eman die urte luzez. LH5eko ikasleek eta batxilergoko lehen mailako ikasleek gozaten dute, batez ere, esperientzia hauek. Tailerrak, esperientzia partekatzen dinamikak zein hitzaldiak ere egiten dituzte gazteek zuzenean helduekin harremanetarako aukera izan dezaten.

“Zaintza lanen ardura ez da indibiduala”

Hernaniko auzozaintza

Xabier Lertxundi Hernaniko alkatea da eta bere herriko esperientziaren berri eman zuen Potxoenean. “Zaintza lanen ardura ez da indibiduala eta pribatua, kolektiboa eta politikoa baizik”, lelo horrekin ekin zion azalpenari.

Zaintza lanak erabat feminizatuta, gaizki ordainduta eta desprestigiatuta daudela ondorioztatuta, eta horretan la-

nean diharduten emakumeek diskriminazioa jasaten dutela konturatuta, zaintza lan horiek birpentsatu nahi izan dituzte alde batetik, eta bestetik bakardadean dauden pertsonak identifikatu. 120 telefono dei egin dituzte etxe horietara, eta jada 15 interbentzio mar txan dituzte.

Interbentzioa egiteko bidelagun figuraz baliatzen dira, hau da, Maitelan kooperatibako zaintza lanetako profesional

bat arduratzen da pertsona helduari laguntzeaz.

Txirikorda proiektua

Usurbilen dauden bi arazo nagusiri aurre egin nahi dion proiektua da Txirikorda. Alde batetik, gazteek etxebizitza eskuratzeko dituzten zailtasunak aurre egin, eta bestetik, adinekoek bakardadea edo etxebizitzaren irisgarritasun faltari. Etxebizitza komunitarioak aukera emango die herritarrei alokai-

ruan bizi eta belaunaldien arteko hartuemanak bultzatzeko, bai eta belaunaldi bereko pertsonen harremanak indartzeko ere.

Herrian dauden bi arazo nagusiri aurre egin nahi dion proiektua da Txirikorda. Alde batetik, gazteek etxebizitza eskuratzeko dituzten zailtasunak aurre egin, eta bestetik, adinekoek bakardadea edo etxebizitzaren irisgarritasun faltari.

Edorta Agirre: “Orain azkar batean jaten dugu, bakartuta, eskuko telefonoari begira...”

Amantala ta mantela (Pamiela, 2022) liburuaren aitzakian, Edorta Agirrereren etxera hurbildu gara. Luze jo du solasaldiak. Argitalpen berria izan da abiapuntua baina kontu jakin-garri gehiago hartu ditugu hizpide. Zertzelada batzuk jaso ditugu bi orriotan.

NOAUA! Amantala ta mantela liburuak Atik Zra antolatuta dago eta ia 500 orrialde ditu. Hiztegi entziklopediko baten itxura hartu diogu. Zuk nola definituko zenuke?

Edorta Agirre: Ez dakit ba. Hiztegi baten modukoa da eta alfabetikoki antolatuta dago. Baina definizio hori harro samarra da, ezta? Oso pedantea. Zu gaztea zara eta akaso ez zenuen ‘katoia’ ezagutuko. Entziklopedia modukoa zen, denetarik zuen, jakinduriari lotutako zizka-mizka moduko batzuk... Horrelako zerbait da (liburuak zabaldu eta ‘ke puntua’ pasartean erreparatu du). Ez dakigu zer den ‘ke puntua’, adibidez. Eta garrantzitsua da jakitea zer nolako olio duen, adibidez. Edota bixiguak –direnak eta ez direnak– bereiztea ere garrantzitsua da.


Bixigua, bixigu gorria... Aukera zabaldu jaso duzu liburuan.

Lehen edozein etxekoandrek zekien hau. Edozeinek. Orain inork ez. Orain, arraina da xerretan eta 400 gramotako formatuan datorren zerbait.

Jakintza arloan galera handia eman da azken hamarkadetan?

Anomia etorri da. Zer da anomia? Araurik ez. Ez dakigu zer jaten dugun, nondik datorren, nola osatuta dagoen... Eta ez gara lehen bezala mahai-jiran eseritzen.

Ohitura hori ere galtzen ari



Edorta Agirrek 'Amantala ta mantela' liburuak plazaratu zuen udaberrian.

EDORTA AGIRRE

“Anomia etorri da. Zer da anomia? Araurik ez. Ez dakigu zer jaten dugun, nondik datorren, nola osatuta dagoen... Eta ez gara lehen bezala mahai-jiran eseritzen”

gara.

Bai, eta mahai-jiran elkartzeari oso komenigarria da. Gauza asko jorrotzen dira hor. Komunikatu ere, mahai baten bueltan komunikatu izan gara. Orain berriz, azkar batean jaten dugu, bakartuta, eskuko telefonoari begira...

Edorta, oraindik ez dugu liburuak definitu.

Helburua da ea lehenbailehen hasten garen esnatzen. Informatikara eta teknologiarantz egokitu zarete –kristo guztia jarri da horretara–, baina elikadurara ez. Hori (elikadura) Amerikako Estatu Batuen eskuetan, boterearen eskuetan, sistemaren eskuetan utzi dugu. Eta kito. Zer jan? Haiek agintzen digutena, haiek jarritako prezioan. Bale.

Erreduktionismoarena ere hortxe dago. Euskal sukaldaritzak ez dakit zenbat Michelin izar dituela... Hori gezur handi bat da! Zenbatentzat ari dira sukaldari ospetsu hauek? Euskal Herriko zenbat jende joan

da horrelako batera? Gezur handi bat da hori dena.

Erantzun argirik gabe jarraitzen dut baina segi dezagun. Idazlea, nola definitu beharko genuke liburu honen egilea? Gastronomian aditua zara baina ogibidez irakaslea izan zara eta itzultzaile lanetan ere jardun duzu, ezta?

Itzultzaile gisa freelance moduan aritu naiz. Baina sukaldari eta arrantzale ere izan naiz. Eta irakasle. UNEDen eta Deuston euskal dialektologia eman nuen, eta UEUn bost urtez elikadura.

Elikadurari eta sukaldaritzari lotutako liburuak da, hain zuzen, Amantala ta mantela. Dena den, elikadurari lotutako unibertso osoari heldu diozula esan daiteke, ezta?

Ikerketa asko daude eginak, xehetasun handikoak, tesi doktoralak eta abar. Baina zeini interesatzen zaizkio horrelakoak? Nik panoramika bat osatu nahi izan dut, baina irakurlea aspertu gabe. Modu arin batean jaso ditut hainbat kontu, baina arinkerian erori gabe.

Kremak, adibidez. Ezagunak aipatu ditut eta pare bat ezezagunak ere bai. Frantziako sukaldaritzak sekulako garrantzia duelako hemen. Oinarrizkoa izan da. Orain ordea, ingelesetik hartzea da bogan dagoena. Aldiz, ingelesak eta estatubatuarrek ez dira oso aberatsak izan sukaldaritzan eta elikaduran.

Anglosajoi kultura gailendu delako izango da.

Anglo-a batez ere. Sajoiak beste kultura bat dute. Europa erdialdean bestelako garrantzia ematen zaio elikadurari eta gastronomiari. Eta Frantzian, noski.

Edorta Agirre: “0 km lema hori nahiko pedantea da, ezta?”

NOAUA! Liburu honen aurretik beste sei eman zenituen argitara, eta urteotan kolaborazio ugari egin dituzu euskal hebedeetan. **Amantala ta mantela** orain arte egindako lan guztien konpilazio bat da ala aurreko argitalpen horien guztien destilatze prozesu baten emaitza izan al da?

Edorta Agirre: Bat, euskaraz idatzita dago. Beste batzuk euskara tartekatzen dute eta beste batzuk zuzenean erdaraz plazaratzen dute. Nik 17 urterekin euskal gizartearen sartzeko baimena eskatu nuen. Euskara ikasi nuen eta hortxe segitzen dut, oraindik ez naiz asperitu eta oraindik ez dut utziko euskal mundu hau. Baina zer gertatzen zaigu euskaldunoi? Kultura beste hizkuntza batean edo bitan edo hirutan iristen zaigula. Hizkuntza horietara jo behar izaten dugu, datorrena datorrela, erreferentzia bila. Eta hemen profesional onak ditugu, baina espainolera jo behar izaten dugu. Ba euskarazko bisioa eman dezagun, ezta? Gure burua euskaraz ager dezagun.

Zentzu horretan, euskararen normalizazioan zure aletxoa jarri duzula esan daiteke. Aletxoa baino aletzarra. 500 orrialdekoa.

Liburu honek potologoa behar zuen.

Bazenuen material gehiago?

4.000 orrialdeko lana zen hasiera batean. 60 ate jo nituen.



Edorta Agirrek Zumetaren koadro bat du etxeko jantokian. Koadro hori ipini du **Amantala ta mantela** (Pamiela, 2022) liburuko azalean.

EDORTA AGIRRE

“4.000 orrialdeko lana zen hasiera batean. 600 bat orrialdera laburtu behar izan nuen liburua”

Eta 60 ateetan kalabazak jaso nituen. 4.000tik 600 bat orrialdera laburtu behar izan nuen. Gero paper eskasiagatik (Ukrainako gezurra tarteko), espazioa laburtu behar izan dugu maketazioan. Dena oso juntu geratu da, ia airerik gabe.

Liburua alfabetikoki antolatuta dagoela esan dugu baina lehen aipua zenbaki batekin

hasten da. 0 km elikagaiak. Ik. Ber-bertoko elikagaiak.

0 km lema hori nahiko pedantea da, ezta? Hemen inortxok ez du horrelakorik esan, sekula. Garaian garaikoa, lekuan lekukoa. Edota ber-bertakoa. **Hori nongoa duk? Hori bertakoa duk.** Neologismo bati heldu behar diogu orain? Kaikuk ekarri duelako? Zoritxarrez, euskara erabiltzeko garaian ez dugu irizpide finkorik.

Globalizazioak hango eta hemengo ohiturak eta joerak berdindu ditu. Lehengoan lagun batek esan zidan gero eta gutxiago direla ogitartekoak

eskaintzen dituzten tabernak. Kebab, pizza eta hanburgesa negoziok hartu dutela ogitarteko tabernen tokia.

Hanburgesak haragi dena du xehatua, saltxitxak ere dena xehatua, gazta? Birrindua aukeran... Kontua da ez mastekatzea. Hori gertatzen ari da eta sekulako eragina du. Joera honi lotuta, zenbat saltsa komertzializatzen diren orain... Eta horretaz gain, pikarokeria sartzen da jokoan. Xehatutako horretan zer sartzen dute?

Auskalo, hobeto ez jakitea.

Zurdak eta azalak eta... Hezurra kendu behar da, bai. Baina gainontzeko guztia hor doa. Lehen subproduktua zena orain produktu izarra bihurtu da.

Zumetaren koadro bat azalean

Amantala ta mantela liburuko azala Jose Luis Zumetaren koadro batekin edertu du. Donostiako San Tomas azokarako egin zuen margoa. “1978. urtean, Franco hil eta hiru urtera”. Bere garaian zentsuratua izan zen margolanaren zati bat. Koadroan irudikatuta dagoen ahateak ‘Nuklearrik ez’ pegatina ospetsua zuen itsatsia. Zati hori zentsuratu zuten Azokako antolatzaileek. Handik urte askotara, Edorta Agirrek lan handi bat egin zuen, “46.000 pezetakoa zen faktura”, eta dirutan beharrean koadroa eskuratu zuen ordainean. “Lurrean zuten, botata”.

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

649 43 54 75
943 36 72 64

IT-ak egiten dira

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

“Gizartea eraldatzeko tresna izatea nahi dugu turismoa”

6⁵⁰ Usurbil bizi, beste mundu bat posible da. Aldarri honen bueltan herritar eta eragileekin lankidetzan hilabeteotan ontzen aritutako turismo eredu berria plazaratzera doaz. Urriaren 14an izango da aurkezpena, 18:00etan, turismoarentzat aurrerantzean erreferentzia gune izango den Mikel Laboa plazan. Hitzorduan parte hartuko dute udal ordezkariak, proiektua lantzen aritu den Jon Maia Soriak eta hainbat herri eragileak.

NOAUA! Izenetik hasita, “650 Usurbil Bizi”. Zenbakiak iragenera garama, baina etorkizunera begirako egitasmo bati buruz ari gara ezta?

Jon Maia Soria: Zenbakiak iragana, mendeurren hori seinatzen du eta hori da proiektu guztia biltzen duen aterki modukoa. Baina aldi berean zenbat Usurbil dauden adierazteko modua da, horregatik dago Usurbilen aurretik eta ez ondoren. Ez da “Usurbil 650” “650 Usurbil” baizik. Usurbil asko daude eta bizi ditzagun horiek. Bizi barrura begira, herritarrekin eta herritarrentzat eginiko plan bat da. Eta aldi berean bizi hitzak balio du bisitariarentzat ere, bizi itzazue Usurbil horiek guztiak. Dema plaza edo herriaren erdigune hori adierazten duen sinbologia du.

Agurtzane Solaberrieta Mesa: Lan hau abiatu genuenean geure buruari galdera batzuk egiten genizkion. Zer da gaur egungo Usurbil? Zerk ezaugarritzen du Usurbil edo zeintzuk dira gure nortasun ikurrak? Nola proiektatu nahi ditugu? Honetan guztian hasi ginenean urteurren hori egokitu zen. Efemeride historiko hori erabili nahi izan dugu egiteko azterketa bat Usurbil nola iritsi den hona arte, baina baita zer den



Turismoari lotutako egitasmo bat aurkeztuko dute urriaren 14an Mikel Laboa plazan. Udalarena da ekimena eta Jon Maia aritu da sustatzaile lanetan.

JON MAIA

“Beste mundu bat posible dela adierazten duen herri bat erakutsi nahi dugu”

gaur egungo Usurbil eta etorkizunean ere zer izan beharko lukeen eta Usurbil hori ere nola proiektatu nahiko genukeen aztertzeke.

Hau ez da turismo proiektu soil bat, eraldaketa bat planteatzen duen herri proiektu bat baizik?

J.M.S.: Plan estrategiko bat da Usurbilrentzat barrura eta kanpora begira. Gizartea eraldatzeko tresna bat izatea nahi dugu turismoa. Alegia, Usurbilen baloreetatik abiatu, eta beste mundu bat posible dela adierazten duen herri bat erakutsi, kanpotik datorrenari. Usurbilera datorrenak gauzak beste era batera egiten dituen herri bat ezagutzea, arlo desberdinetan, eta azkenean ezagutza horretatik beraiek ere bihurtu daitezela gauzak beste era batera egiteko modu horren enbaxadore eta beren herrietara eraman dezatela Usurbilen ezagutza hori. Hori da helburua, turismoaren kontzeptua iraultzea, positibizatzea. Eta balio dezala herria dinamizatzeko eta gizartea eraldatzeko.

A.S.M.: Zer Usurbil proiektatu nahi dugun, ariketa hori, egin dugun herri ariketa bat izan da, Jonek lehen fasean elkarriketatu zituelako berrogeitik gora gizarte eragile eta pertsona. Entzute fase horretatik osatu zuen Jonek “650 Usurbil bizi”. Normalean halakoetan turismo enpresek egiten dituzte herri batentzat turismo eskaintzak, kasu honetan ordea behetik gora eraikitzen den eskaintza bat da. Horretan, ereduaren eta edukietan ere berritzailea da; turismo eskaintza honek herriaren identitatean, ondarean... jartzen du begirada. Gizarte eraldaketa sustatu asmo duten proiektu eta egitasmoetan, eta beraz, bilatu nahi dugun bisitaria ere bada horretan aritu edota proiektu horiekiko interesa duena.

J.M.S.: Gure aldarrietako batek dio “bestelako herri bat, bestelako mundu bat nahi duen bestelako bisitariarentzat”. Guk uste dugu badagoela bisitari profil bat, ezinegon hauek izan ditzakeenak. Oso ezaugarri bereziak dituen herri bat topatu dut eta horrek asko erraztu du nire lana. Gauzak beste era batera egin nahi duten herri bat topatu dut, gizarte eraldaketak transbertsalki alor guztietan aplikatu nahi duen herri bat. Batzuetan gehiago lortuko du besteetan gutxiago, baina beti

nahi du. Zaintza eredu, hondakinen tratamendua, memoria historikoa, Ez Dok Amairurekin harremana,... Hori dena hor zegoen baina inork ez du pentsatzen ezaugarri horiek denak turismoarekin erlazionatu daitezkeenik. Fokua guk nahi dugun horretan jarri dugu, onuradunak ahal dela izan daitezela herritarrek. Haien onespenearekin egiten dugu guztia. Horrek mugimendu ekonomiko bat ekar badezake, hobeto. Baina arrakastaren adierazleak ez dira bakarrik ekonomikoak izango turismoan ohikoa den moduan, kualitatiboak baizik. Usurbila etortzen den pertsona bakoitza zenbatuko dugu ahal badugu. Pertsona bat etortzen bada gure web orri berrian sartuta, beste mundu bat irudikatzen duen herri bat ezagutzera datorrelako, jada garaipen bat izango da guretzat.

A.S.M.: Nahiko identifikatuak genituen Usurbilek izan beharreko turismo eskaintza horren osagaiak zeintzuk ziren, baina puzzlearen pieza guztiak elkarrekin lotuko lituzkeen kontakizuna falta zitzaigun. Jonek Usurbil horiek guztiak lotzen dituen hari bat eraiki du. Herri proiektu interesgarri batean bihurtu da, ez garelako soilik hitz egiten ari turismo eskaintza soil batetaz, herri identitatearen dinamizazioaz hitz egiten ari gara eta horren parte bihurtu nahi ditugu herriko eragile eta elkarrekin. Alor honetan ere posible da herritarren iritziak, ikuspegiak, bizipenak biltzea eta horretatik abiatuta proiektu eta eskaintza bat osatzea. Eta sortzea ere haien aldetik harrotasun bat eraiki dugun errelato honekiko. Harrotasun horrek ere ekartzen du proiektuarekiko atxikimendu bat lortzea, gogoia sortzea hori guztia kanpora proiektatzeko.

Jon Maia: “Proiektu aitzindari bat izan daitekeela uste dugu”

NOAUA! Zertarako baliatu nahi duzue urriaren 14ko aurkezpen ekitaldia?

Jon Maia Soria: Bi elementu oso garrantzitsu aurkeztuko ditugu. Batetik, “650 Usurbil bizi, beste mundu bat posible da” web atari oso dotorea. Hori izango da gure eskaintzaren erakusleho nagusia Usurbildik kanpo. Bestetik, bisitariari Usurbilgo ikuspegiaren berri emango dion zutabe informatibo bat kokatuko dugu Mikel Laboa plazan. Horren ondoan izango da aurkezpena. Eta gero, abian jarri ditugun lehenengo proiektuak aurkeztuko ditugu. Ideia da progresiboki, proiektu desberdinak abian jartzea. Denbora asmo daramagu barne sukalde lanetan eta honetaz gozatzen hasteko gogoia dugu, batez ere emaitza herritarrekin partekatzekoa. Proiektu aitzindari bat izan daitekeela uste dugu, herri gehiagotan ere aplikatu daitekeena. Nahi duguna da bisitari orok ikusi dezala Usurbil ezagututa, beste mundu bat posible dela.

Agurtzane Solaberrieta Mesa: Bilatzen dugun turismo ereduari buruzko gogoeta hauek plaza-ratu genituen abenduko Sute-giko aurkezpen hartan; eduki nagusiak, Usurbil horiek zeintzuk diren... Hilabete hauetan proposamen horretan jasotako proiektuak martxan jartzeko urratsak ematen aritu gara. Proiektu hau martxan dagoela ikusgarri egingo duten lehen ekintzak edo urrats horiek eta



“Egitasmo hau Udaletik abiatu arren, herri proiektuan bihurtu da eta hori irudikatu nahi dugu urriaren 14ko ekitaldian”, Agurtzane Solaberrieta alkateak adierazi digunez.

650 USURBIL BIZI

“Ideia da progresiboki proiektu desberdinak abian jartzea”

gerora ere epe motzera etorriko direnen berri ere emango dugu urriaren 14an. Egitasmo hau Udaletik abiatu arren, herri proiektuan bihurtu da eta hori irudikatu nahiko genuke hilaren 14ko ekitaldian.

Orain arte bideraturiko sukalde lan horretan, zertan aldatu zaizue herri honekiko aurrez zenuten ikuspegiak?

J.M.S.: Niretzat deskubrimendu bat izan da Usurbil eta datoren edozein bisitarirentzat ere deskubrimendu bat izatea nahiko nuke. Balorez eta altxorrez betetako herri bat dela

iruditzen zait. Hori kanpotik ez zen ikusten edo nik behintzat ez nuen hori ikusten. Lan honi esker deskubritu dut Usurbilek oso ezaugarri potenteak dituela, merezi dutenak ezagutzera. Oso herri gutxi dute Alkartasuna bezalako 100 urte-tik gorako nekazal kooperatiba bat; Europa osoan bangoardia izatea hondakinen tratamendu mailan edo zaintza ereduaren hemen egiten ari diren proiektuak; Zumetaren horma irudia, edo hemen dauden horma irudiak eta eskulturak, izugarria da; edo Ez Dok Amairurekin lotura hori, ez dago beste herri bat halako loturarik duenik. Ezaugarri horiek modu soltean ikusiz gero ez zara konturatzen agian, baina Usurbil osatzen duten puzzlearen pieza guztiak mahai ganean ikusten dituzu-

nean inpresionatu egiten du. **A.S.M.:** Duguna balorean jartzen, norabide batean kokatzen lagundu dit. Beste mundu bat eraikitzeko mesedetan egiten dugula sinestarazten kokatu nahi genituzke herritarrak eta herriko eragileak. Barneratzea, sinestea. Kanpo proiektioari baino garrantzia ematen diot herri proiektu bat izateari. Hemendik eratortzen diren Usurbil horietan guztietan pentsa zenbat eragile dauden. Horrek ahalbidetzen du proiektu honen mesedetan elkarlanak bideratzea, sektore oso desberdinak ere aritzea norabide honetan. Barrura begira duen dimentsioa eta potentzialtasuna handia da. Eta horiek benetan ondo egiteko gai bagara, kanpora begirako proiektio horretan izango du islada.

eskura
elikadura eta dietetika aholkularitza

DIABETESA, HIPERTENSIOA,
GIZENTASUNA, ELIKADURA
ETA KOLESTEROL ARAZOAK

688 843 696
Zubiaurrenea 1, 1c Usurbil

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com
600 024 825

Jugatx Agirre: “Geroz eta emakume segalari gehiago dago”

Europako sega txapelketako podiumetik bueltan datoz Jugatx Agirre Zubizarreta herrikidea eta Almitza elkarteak. Bavarian bizitakoak eta aipatu bilgune barruko bizimoduaren berri dakartza sortzez Usurbilen bizi eta egun Berastegin bizi den lagunak.

NOAUA! Une gozoa bizitzetik zatoz uda honetan?

Jugatx Agirre Zubizarreta: Berez Europako banakako txapelketa jokatu behar zen Eslovenian baina diru kontuak zirela eta, ez da antolatu, hurrengo urterako utzi da. Azken bi urteotan ez dugu nazioartean lehiatu eta horregatik, Bavariako nazioarteko txapelketan parte hartzeko gonbita luzatu ziguten. Etxekoak, austriarrak, Hego Tirol, suitzarrak eta esloveniarrak joan ziren eta Euskal Herritik gu. Abuztuaren 14an jokatu zen txapelketa. Helburua zen lau kideren artean ahalik eta txukun eta azkarren egitea, eta bakoitzak ematen duen lerroa ahalik eta proportzionalena izan behar zuen baita ere.

Taldeak nola jaso ditu European



Europako sega txapelketako podiumetik bueltan datoz Jugatx Agirre Zubizarreta herrikidea eta Almitza elkarteak.

JUGATX AGIRRE

“Guretzat garrantzitsua da Europa mailan parte hartzea”

eskuratutako emaitzak?

Gure kasuan, Maria Luisa Gabirondo, Maider Garmendia, Alaitz Imaz eta laurok ginen goizeko txandan, hirugarren postuan geratu ginen. Arratsaldeko finalerako sailkatu ginen. Finalean denboragatik ez ginen

lehen postuan sailkatu baina lana oso txukun egin genuenez, berez lehenengo geratu ginen. Beste emakumezkoen taldea seigarren geratu zen, gizonetzkoena baita seigarren. 16 urtez azpikoen artean parte hartu zuen gaztetxo bigarrenen. Goizeko eta arratsaldeko kalkuluaren arabera bigarren geratu ginen, lehen postuan austriarrak eta hirugarren suitzarrak. Suitzarrek azkarren egin zuten proba baina ez zuten txukun ebaki. Halakoetan

zigortu egiten dute denbora aldetik. Gu bigarren postuarekin oso pozik. Guretzat garrantzitsua da Europa mailan parte hartzea. Gure taldea selekzioa izan ez arren, Euskal Herria ordezkatzera doa. Jendeak gu ezagutzen gaitu, badaki Euskal Herria non dagoen, aintzat hartzen gaituzte. Segua Euskal Herriko kirol jarduera bat dela uste dugun arren, Europa mailako beste kirol jarduera bat da eta haiengandik ere ikasteko asko dugu.

“Urte batzuk badaramatzagu Europa mailan lehiatzen”

NOAUA! Segarako ohitura errotua dute European?

Jugatx Agirre Zubizarreta: Batzuk sega aurrera egin beharrean izkinaka bezala egiten dute. Egun guk txapelketa hauetarako erabiltzen ditugun segak ere europar estilora daude jarrita. Euskal Herrian ez da segarik egiten lehiatzeko. Gure lau taldean adibidez, Maria Luisa urteak zituen euskal segarekin joan zen lehia. Nirea adibidez, segaren burdinezko zatia austriarra da eta kirtena hemen jarrita

dago. Baina kirtenaren forma, heldulekua European erabiltzen den modukoa da. Gu ere hango segakera eta hango segak nola diren ikasten ari gara.

Oso desberdina da?

Materiala agian bera da, baina kirtena ez da Euskal Herrikoa bezalakoa. Euskal Herriko segarekin gorputza oso behean doa baina han gorputza altuago, arosogo doa. Eta gero, kirtenetik segan dagoen graduazioa, zabalagoa da baita ere. Egia da lan luze baterako hemengo segak

prestatuagoak daudela, hauek askoz luzeagoak dira, 1,35 zentimetroko sega da nirea.

Segak gure kultura eta Euskal Herria ere European kokatzen lagundu dezake?

Herri kirolen artean, Euskal Herritik kanpo sokatira izango da mundu mailan jokatzeko den jarduera. Egun oihartzun pixka bat ematen zaio baina guk urte batzuk badaramatzagu Europa mailan lehiatzen, Euskal Herria ordezkatzeko, lan txukuna egin eta presentzia bat izanez

European. Segan ibiltzen den jendeak behintzat European kokatu dezake Euskal Herria, euskal kultura ezagutzeko parada da. Guk eta esloveniarrak izan ezik, gainerakoak bavariarrez mintzatzen ziren. Baina oso irekiak dira, beti ingelesez komunikatu izan dira, beti laguntzeko prest eta egia esan harrera bikaina egin izan digute. Antolatzaileei esan genienean 19 pertsona joango ginela etxe bat jarri ziguten, bitak antolatu zizkiguten... dena doan.

Segalaritza eta Euskal Herria, Europako podiumean

NOAUA! Hori guztia han. Euskal Herrira etorrira, zuen whatsapp bidez jaso dugu Europako txapelketaren berri. Zer egon liteke jarraipen falta horren atzean?

Jugatz Agirre Zubizarreta: Herri kirolak orokorrean gutxiengo batek praktikatzen du, eta horren barruan sega are eta gutxiagok. Ikusgarritasuna izatea zaila da. Ulergarria da, herri kirolak 17-18 jarduerak osatzen badute, denei hainbesteko garrantzia ematea zaila da. Baina Almitza elkarteak urteetan lan txukuna egin du, eta egiten ari da kirol honi ikusgarritasuna emateko. Askotan ez dakigu nola ailegatu. Informazioa zabaltzen dugu, baina askotan zaila da halako kirol ezezaguna denean ikusgarritasun hori ematea. 2027an Europako sega txapelketa Euskal Herrian antolatuko da, ikusiko da behar bezalako oihartzuna ematen zaion. 2015ean Azpeitian jokatu zen, eta komunikabide batzuen aldetik ez zitzaion ikusgarritasunik eman, Europako txapelketa bat dela kontuan izanda.

Almitza elkartearen helburuetako bat baita, kultura hau eza-gutzera ematea.

Sega elkarteak da eta bere helburua segalaritza mantentzea



Almitza sega elkartearen helburua "segalaritza mantentzea da".

LEHORTEAREN ERAGINA

Europako txapelketara joateko entrenamendu leku bila aritu behar izan zuten, ez baitzegoen

da eta jendea segan aritzea. Nazioarteko lehia hauen bitartez Euskal Herria ezagutzea sustatu nahi da, gure kultura ezagutzea eta jendeak guri ere mapan kokatzea. Aldaketa bat eman da azken urteetan; geroz eta emakume segalari gehiago dago. Hor itzaleko lan asko

egiten du Joxe Gabirondok Gaztelun. Bertan sega eskola sortu dute; Gazteluko ume askok bertan ikasten dute eta urte luzeetan jarraitzea espero dugu. Batzordea ere berriro eta gaztetu egin da, emakume gehiago gaude. Emakume gehiago gaudenez, horri ikusgarritasuna emateko ekainean binakako emakumeen sega sail txapeketa egin genuen; binaka 300 metro karratu ze bikotek azkarrago eta txukunago ebaki. Hemengo segalaritza forma edo lehiatzeko modua gainbeheran dator.

Zertan nabari duzue?

Lehia horretan ez dago segalaria bakarrik; bere laguntzailea behar du, zeinek zorrozuko dion sega, biltzaileak... Denera hamarrek talde bat da. Jendea behar duzu horretarako, fitxa ordaindu behar diozu eta entrenatzeko eremuak behar dira, baserritarrek baimendu behar dute. Horrez gain, apiriletik irailera bakarrik praktika dezakezu, eguraldiaren mende gaude.

Lur eremu falta aipatu izan duzu sarritan.

Aurtengo lehorreokin adibidez, Europako txapelketara joateko entrenamendu leku bila aritu ginen, ez baitzegoen. Mantentzen direnak jendeak urteetan lotuta dituen sailak dira. Nire kasuan, etxean zati oso txiki bat dut eta hori nik egiten dut. Segan ibiltze den Tolosako kide baten sail dezente ditu eta bere etxera joaten naiz. Gure artean whatsapp bidez komunikatzen gara, norbaitek belarra badu joateko. Bestela oso zaila da. Horregatik, duela bi urte beste modalitate bat sortu genuen; lan luzeagoak egiteko probak. Etorrizuna horretan egon daitekela uste dugu, laguntzaileak bilatu beharrik ez hartara.

“Belaunaldi arteko harremana oso polita da”

NOAUA! Lurraren zaintzarekiko beste begirada bat izango duzue zuek?

Jugatz Agirre Zubizarreta: Edo nork esango dizu lur-eremua duenak lana duela zaintzen. Lursail bat bere horretan utziz gero, sasiak hartu eta su hartzeko erraztasun handiagoa izaten du. Seguraski edozein herri duela 50 urte zuen itxura eta egun duena alderatzen hasiko bagina, aldea egongo litzateke. Garai hartan, soro gehiago egongo ziren. Gaur

egun lursail askotan etxebizitza ez badago sasiak hartuta dago. Segalaritzaren gainbehera ere horri lotua dago. Komentatu izan dute etxean abereak zituenak eguneroko janaria eskuratzeko belarra segaz ebakitzen zela, baina ohitura hori ere galdu dela.

Egutegia eskutan, zer nolako agenda duzue?

Esloveniako txapelketa ospatuko zelakoan, hiru saioko geure liga uztaileko oso goiz

bukatu genuen. Denboraldia borobiltzeko urriaren 15ean Zaldibiako jaietan urteroko lagunarteko saioa egingo dugu.

Segan zuekin hasi nahi duenak, baldintza fisiko zehatzik bete behar du?

Ez. Teknika ikasiz gero nahikoa da, gero entrenatzea da gakoa. Oraindik gu horretan gabiltza, nik lau urte daramatzat. Segalaritza mantentzea nahi dugu. Politena dugun familia giroa da. 10-70 urte arteko jendea ari da

lehiatzen, belaunaldi arteko harreman hori oso polita da.

Zer eman dizu zuri segak?

Hasi nintzenean aukera bat izan zen kirola egiteko, eta beste edozein jarduerak ez bezala, katigatu zidan. Dagoen kideetasunak erakartzen nau. Naturan, kanpoan praktikatzea dezakezun jarduera bat da. Baliagarria da nire kasuan, nire etxerako. Inguruarekiko beste ikuspegi bat duzu. Naturarekiko gertutasuna.



KINKA

KLIMA ETA NATURA KRISIAN

Podcasta eta buletina, **hamabostero.**



**Harpidetu zaitez
buletinera**

Berria.eus/kinka

berria

zuk badakizulako



Euskara ikasteko aukera gehiago

Euskara ikasteko aukera ugari dago Etumeta AEK euskaltegian. Udalak ere, bere aldetik, bi ikastaro antolatu ditu: etorri berrientzako bat, jubilatuentzako bestea. Bi kasuetan urriaren 14an amaituko da izen-ematea.

Etorri berrientzako hastapen-ikastaroa

Iazko udaberrian martxan jarritako ikastaroaren harrera bikaina ikusita, Udalak etorri berrientzako beste ikastaro bat iragarri du. "Herrira iritsi berri eta euskaraz ez dakiten horiei dago bereziki zuzenduta, baina euskara ikasteko aukerarik izan ez duten eta hutsetik abiatu nahi duten herritarrek ere aukera izango dute izena emateko", udaletxetik aditzera eman digutenez.

Astearteetan Potxoenean

■ Saioak Potxoenean egingo dituzte astearteetan, 18:15ean hasi eta 19:45ak arte.

■ Izen-ematea: urriaren 4tik 14ra, itzultzailea@usurbil.eus



Jubilatuentzako euskara ikastaroa 2020ko udaberrian antolatu zuten lehen aldiz. Iaz, etorri-berriak direnzentzat. Harrera bikaina izan zuten biek. Laster hasiko dira bi ikastaroak. Argazkia: Usurbilgo Udala.

IKASTAROAK

"Etorri berrientzako eta jubilatuentzako ikastaro bana antolatu du Usurbilgo Udalak"

helbidera idatzita edo 943 371 999 telefonora deituta.

■ Lehen saioa: urriak 18.

Jubilatuentzako ikastaroa

Iazko molde bera izango du aurtengo ikastaroak. Artzabal-en ariko dira, ostegunetan, 18:15ean hasi eta 19:45ak arte.

Ostegunetan Artzabalen

■ Oinarrizko esamoldeak, hiztegia, diosalak... Tankerako kon-

tuak landuko dituzte ikasturtean zehar.

■ Izen-ematea: urriaren 4tik 14ra, itzultzailea@usurbil.eus helbidera idatzita edo 943 371 999 telefonora deituta.

■ Aurrez aurre Gure Pakearen egoitzan (Artzabal), 10:00etatik 12:00etara.

■ Lehen saioa: urriak 20.

Euskara ikastaroak egin dituztenentzako udal dirulaguntza ebazpena

Aurreko ikasturtean euskara ikastaroren bat egin eta uda hasieran dirulaguntza eskaeraren bat egin zutenei zuzenduriko ebazpena kaleratu du astelehen honetan, Usurbilgo Udalak.

Etumeta AEK euskaltegiak 2022-23 ikasturtea abiatuko duen astelehen honetan, urriaren 3an heldu da aurreko ikasturtean euskara ikasten aritu zirenen artean Udalarik dirulaguntza eskatu ziotenei zuzenduriko ebazpena. Iragan irailaren 26an Dirulaguntza Batzorde Orokorrak ebaztitakoa hain zuzen. Guztira 50 eskabide aurkeztu

zitu zuten 49 herritarrek, Udalak tramitazioarako finkaturiko epearen baitan, ekainaren 27tik uztailearen 8ra. Guztira, 21.136,14 euro banatu asmo ditu Udalak laguntzaz bidez.

Behin-behineko ebazpena da honakoa. Alegazioak aurkezteko urriaren 18ra arteko epea izango dute interesdunek.

Informazio gehiago: 2022ko urriaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

Euskara doan ikasi daiteke

Gogoan izan, euskara doan ikasi daiteke Usurbilen. Matrikula kostuaren %100a finantzatzen du Udalak, 600 euroko

mugaren baitan. Horretarako zenbait baldintza bete behar izaten ditu euskara ikastaroren bat egin duenak; besteak beste, Usurbilen erroldatua egotea, ikastaro osoan gutxienez %80ko asistentzia izatea (autoikaskuntzaren kasuan aprobetxamendua ziurtatzea).

Gutxieneko aprobetxamendua gaintzea, euskaltegiak egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharrekoa. Lehenbizi ikastaroa egin behar izaten da, eta hura amaituta, ekaina amaieran zabaldu ohi du Usurbilgo Udalak dirulaguntzotara eskabideak aurkezteko epea.

Etumeta AEK euskaltegia

Ohi bezala euskara ikasteko maila guztiak (A1, A2, B1, B2, C1, C2) eskainiko ditu AEK-k, aste honetan abiatu duen ikasturte berrian. Aurrez aurreko eskolak eta jarraipen pertsonalizatuak (tutoretzak), azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak, autoikaskuntza, mintzamina lantzeko ikastaroak astean bi egunez... Eskaintza zabala da aurrean ere.

Informazio gehiago:

Nagusia, 43

607 609 379

usurbil@aek.eus

aek.eus

muntteri.blogspot.com.es

“Bi klubun arteko harremanak sendotu nahian antolatu dugu Garagardo Azoka”

Usurbil F.T.-k eta Usurbil K.E.-k Garagardo Azoka antolatu dute estreinakoz urriaren 13tik 16ra. Bi klubun arteko lankidetzan sakondu eta bi bilguneontzako laguntza biltzea dute xede nagusi, Usurbil K.E.-ko zuzendaritza batzordeko kide Xabat Beloki Seguroak eta Usurbil F.T.-ko Futbol Eskolako koordinatzaile Eneko Eizagirre Huetak lerrootan NOAUA!ri adierazi diotenez.



Usurbil FT eta Usurbil KE dira Garagardo Azokaren sustatzaileak.

NOAUA! Nolatan batu zarete azoka hau antolatzeko?

Eneko Eizagirre Hueta: Azkenean urteetan bi klubun artean gerturatzeko saiakerak egon dira. Kirol Astea antolatzen hasi ginen Aste Santutan, denboraldi amaierako klubun afaria batera egiten... Ekimen handiak antolatu eta harremanak sendotu nahian, Garagardo Azoka hau sortu dugu.

Harremana estutzeak zer ekarpen egingo lioke bi klubei?

E.E.H.: Bi klub handien artean elkarlanean jardunez askoz aberatsagoa izango da herriarentzat. Bien arteko elkarlanak bioi mesede egiten digu.

URRIAREN 13TIK 16RA, GARAGARDO AZOKA

“Usurbil FT eta Usurbil KE elkarlanean jardutea askoz aberatsagoa izango da herriarentzat”

Ondo girotutako azoka izango da ezta?

Xabat Beloki Seguroa: Halako azoka bat antolatzen dugun lehen aldian izango da. Lan asko du honek bai aurretik, unean bertan eta baita gero ere. Jendeari inplikatzeko eskatzen diogu, azokako lau egunetan goza dezatela. Usurbilgo jendeak girotutako egitarau oparoa izango dugu. Gastu handia suposatzen

du hau dena antolatzeak eta horri buelta eman behar zaio. Ea irabaziren bat edo beste ateratzen dugun. Halere, lehen urtea izanda irabaziak eskuratzea ez da gure helburu nagusia, gauzak ondo egitea eta ikasteko balio izatea baizik, urtez urte hobetzeko.

Klubentzako laguntza biltzea, helburuetako bat.

E.E.H.: Hainbeste jende mugiarazten duten bi klub hauek beraien jardunean jarraitzeko, azkenean oinarri ekonomiko bat behar da fitzak ordaintzeko, dena egiteko... Inguruko herrietan halako azokak antolatzen dituztela ikusita probatu

beharreko zerbaitek zela iruditzen zitzaien; ondo ateratzen bada, errepikatzen. Gainera, nola ez, jende guztiak ondo pasa dezala eta gauza polit honenkin ea aportatzen diogun bai herriari eta bi klubei.

X.B.S.: Eskerrak eman dirua jarri duten komertzio guztiei. Haiek ere azoka honen parte dira. Badakigu askotan zailtasun handiak egoten direla dirulaguntza hori jasotzeko.

Laguntzarako deialdirik egin asmo duzue?

E.E.H.: Zerbitzatzeko, sukaldean lantzeko, muntaketa-rako... jendea beharko dugu. Deialdia egingo dugu, ea nola erantzuten duen herriak.

X.B.S.: Alde horretatik oso pozik gaude, laguntza handia jasotzen ari baikara. Laguntza eskaerak ere bai. Lan egiteko jende asko dago prest; bai guraso, jokalarik, zaletu... Laguntzeko prest dagoen guttira gurekin hartuemanetan jar dadila eta barrutik lagunduz, honen guztiaren parte izateko tokia izango du. Hiru azoka gau izango dira; gunea gauetan zaintzeko laguntzaileak izatea eskertuko genuke.

Jende gaztea taldeetako ardura postuetan

NOAUA! Nolako izaten ari da bi klubontzat denboraldi hasiera hau?

Xabat Beloki Seguroa: Zuzendaritza batzordean geroz eta jende gazteagoa ari da sartzen. Taldeei dagokienez, bost ditugu: bi Gipuzkoa mailan eta hiru Euskal Ligan. Alde horretatik pozik gara. Senior nesken taldea aurtan ere ez da posible izan osatzea eta hurrengo urtera arte hori izango da guretzat helburu handi bat; bertako jokalariekin senior mailan nesken

taldea osatzea eta hartara sei talde izatea, mutil eta neskena; maila bakoitzean talde bana.

Bigarren urtez ezin da osatu ezta senior nesken eskubaloi taldea?

X.B.S.: Jada bi denboraldi goaz talde hori izan gabe eta hemendik bai animatu nahi nituzke hurrengo urtean seniorrak izango diren neskek orain jubenilak direnak eskubaloian jarraitzera, eta eskubaloia utzi dutenak ere bueltatzera, senior nesken taldea osatzeko.

Atzetik badator jendea?

X.B.S.: Bai, jubenil mailan 14 neska inguru dira eta esperantza horrekin gaude; ea hurrengo urtean pausoa eman eta talde polit bat osatzerik dagoen.

Usurbil F.T.-ren kasuan, zer nolako denboraldi hasiera bizi-tzen ari zarete?

E.E.H.: Gazteon eragina ere jasan du klubak, baina beti ere atzetik zetorren zuzendari-tzaren laguntzapean. Bestalde, jokalarik aldetik kluba inoiz bai-

no hobeto dago. Senior mailatik hasi eta Futbol Eskolara arte 290 bat jokalarik daude, hori Usurbil mailan izugarria da. Zuzendaritzaren edo klubaren lan ona erakusten du horrek eta alde horretatik oso gustura gaude. Haranen duela 10 bat urte pentsaezina izango zen entrenamenduetan talde guztiei zelai zati-txoa uzteko ahaleginak egin beharko genituenik. Gauzak ondo egiten ari diren seinale dela iruditzen zait, ea ildo honetan jarraitzen dugun.

“Kirola herrigintza da”

NOAUA! Denboraldi hau osasun krisialdi osteko lehenengoa izango da. Harmailetako zaletuak berreskuratu dituzue?

Xabat Beloki Segurola: Oraindik goiz da zaletu horiek bueltatuko diren edo ez ikusteko. Baina jendea gogoz ikusten da bi urte eta gero Kiroldegira edo Haranera joateko. Guretzat indar handia da partidetara joatea, gurasoen gain haur eta gazteak partidak ikustera joatea, haiek baitira etorkizuna. Beraz, badakigu bi klubek partidak ordu berean izaten direla, baina ahal den moduan behintzat bai Oiardora eta Haranera gerturatzea eskertuko genuke.

Eneko Eizagirre Hueta: Kirola herrigintza da. Jolastu eta giro hori sortzetik denok elikatzen gara. Kiroloren alderdirik politena hori da, sortzen den giroa. Kirola egiten hasteko lehenik afizionatu eta partidak ikustera joan behar da, oso aberasgarria da, sortzen den giroa oso polita da. Beraz bai Oiardora eta Haranera jende gaztea gertura dadila, gure klubeko jardunaren oinarria dira. Ea aurreko denboraldi amaieran bezala, aurten ere harmailak betetzen ditugun.

Hobetu beharrekorik ikusten duzue denboraldi berrira begira?

E.E.H.: Klubak herriarentzat dira, herriko jendeak kirola egiteko eta herritik elikatzen dira. Izena ematen duten haurren gurasoek klubeko parte izatera, laguntzeko deialdia egin nahi diegu. Bestalde, Haranen dabilen kirolari kopurua bikoiztu egin da eta futbol zelaia ez dago baldintza-



“Zerbitzatzeko, sukaldean lantzeko, muntaketarako... jendea beharko dugu”.

USURBIL FT ETA USURBIL KE

“Kiroloren alderdirik politena horixe da, sortzen den giroa”

rik hoberenetan. Asko eskertuko genioke Udalari hor inbertsio bat egingo balu.

X.B.S.: Gure kasuan, urtero moldaketa handiak egin behar izaten ditugu entrenamendu saioetan, espazio falta nabarmena izan da. Oiardo pista bakarrarekin dago, pista horretan sartu behar dira eskubaloikoak, Zirimara, boleiko taldea, soinketa erritmikokoak. Espazioaren erabilera oso murrizta dugu, ezin ditugu nahi genituzkeen moduan egin entrenamenduak. Ez nuke eskatuko zuzenki beste pista bat egitea, badakit ekonomikoki zer den hori udalarentzat, baina bai konponbide bat behar duela gai honek.

Denboraldi berri honi begira beste erronkarik?

E.E.H.: Joko polit bat eginez jokalariek kirolaz gozatzea eta

jendea gozaraztea. Horrez gain, gure gaztetxoek transmititzen ari garen baloreak transmititzen segitzea. Ea aurtengo denboralditik hurrengora jende kopuru bera edo handiagoa dugun gure klubetan.

X.B.S.: Gure urteroko helburu nagusia, taldeetan dauden jokalariek hurrengo urtean taldeetan jarraitzea izaten da. Egia da nesken aldetik jauzi handia egon dela eta emakumezko jokalariek dezente daudela aurten eta hori izaten da normalean gabezia handiena. Senior nesken kasua da adibide argienetako bat. Gure helburua, jendea gustura aritzea da, eskubaloia probatzera animatzea, geroz eta gehiago bagara hobeto. Kirol arloari dagokionean, urteroko gure helburuetakoa izaten da Euskal Ligan mantentzea eta Euskal Ligan ez dagoen talde hori liga horretara igotzea. Eta gehiago eskatuz gero, ea Espainiako sektorearen batera heltzen garen; Usurbilgo herria ordezkatzuz, asteburu polit bat herritik kanpo igaro dezakegun.

Garagardo Azoka frontoian egingo da Urriak 13, osteguna

■ 18:30 Azokaren irekiera.

Urriak 14, ostirala

■ 18:00 Azokaren irekiera.

■ 19:00 Musikari-kirolari ekitaldia: eskubaloi zein futbol taldeetako musikariak.

■ 23:00 DJ Skywalker.

Urriak 15, larunbata

■ 12:00 Azokaren irekiera.

■ 18:00 Maddi eta Elene.

■ 20:00 Zozketako zenbaki sarituen banaketa.

■ 22:00 Dj RR.

Urriak 16, igandea

■ 12:00 Azokaren irekiera.

■ 16:00 Usurbilgo Garagardo Azokako 1. Mus Txapelketa: -Izen-ematea: 15:30-16:00.

-Prezioa: 30 euro bikoteko (2 pitxar eta 2 garagardo berezi barne).

1. saria: txapelak, irabazlearen altuera garagardo kaxetan, urdaiazpiko bat.

2. saria: kopak, Patri jate-txean bi pertsonentzat aste-buruko bazkaria edo afaria.

3. saria: 2 ukondo, Aialde Berriko sagardoa.

4. saria: 2 garagardo berezi.

■ 20:00 Azokaren itxiera.

Oharrak:

■ Otorduen ordutegia: bazkariak, 13:00-15:00. Afariak, 20:00-23:00 artean.

■ Urriaren 13an afaria eskainiko dute, urriaren 14ean eta 15ean bazkaria eta afaria eta urriaren 16an bazkaria.

■ Jatekoa azokan bertan jan edota eramateko eskatu ahal da.

Uraitz, s.l.
Igeltzeritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 19/22

20170
USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

Pili Manterola gogoan

Udako etenaldiaren ostean berri itxaropentsu batekin itzuli zen Usurbilgo Sare irailaren 30ean Mikel Laboa plazan egin zuten elkarretaratzerara; “euskal presoak etxetik gero eta hurbilago daude, eta herritarrak ere prest gaude etxeratze prozesu hori gauzatzeko. Baina oraindik lana dugu egiteko”, ohartarazi zuten. “Urruntze-politikarekin amaitu eta salbuespen-egoerari bukaera emateko bidea egiteko dugula gogorarazi nahi dugu”.

Halere, azken urteotan eman diren urratsak nabarmendu dituzte. “Azken urteetan izandako lorpenak oso garrantzitsuak dira, eta hauek urte luzeetan urruntze politikaren amaiera eskatu dugun herritarren, eragileen, alderdi eta sindikatuen bultzadari esker lortu dira”.

Besteak beste, 70 urtetik gorako Jon Kepa Parot eta Jakes Esnal lapurtarrak baldintzapean aske geratu izana, “espetxean bakoitzak 32 urte eta erdi bete ondoren”. Albiste honekiko poza agertu du Usurbilgo Sarek, Ipar Euskal Herriko gizarite zibila zoriontzarekin batera. “Sektore zabalen konpromisoari, lanari eta mobilizazio sozialari esker lortu baita bizitza osorako zigorra jaso zuten bi presoen askatasuna”.

Donostiarako deia

Hitzordu bat ate joka; azken urteotan presoan auziari konponbidea emateko Sarek martxan izan duen “Izan Bidea” dinamika borobiltzeko



Larunbat honetako manifestazioa goizeko 11:00etan abiatuko da Donostiako Bulebarretik. Handik Illunbera joango dira manifestazioan.

USURBILGO SARE

Urriaren 8an Donostian antolatu den mobilizaziora joateko deia luzatu die herritarrei

urriaren 8an Donostian antolatu duten mobilizazio eguna eta jaialdia. “Parte hartzeko deia luzatu nahi diegu herritarrei”.

Kontzertu gaua, bertan behera

Urriaren 8koaren ondotik, hilaren 28rako Usurbilen kontzertu gaua antolatzekotan zen Sare, Ameba, Unidad Alavesa eta Delirium Tremens taldeekin. Aipatu herri bilgunetik jakinarazi dutenez ordea, “zoritarrez bertan behera utzi behar izan dugu”.

“Pili Manterola eredu izan da”

Oroimenerako tartea hartu zuten Usurbilgo Sarek iragan ostiralean Mikel Laboa plazan deituriko elkarretaratzean. Uztailean zendu zen Pili Manterola Aizpurua herrikidea oroitu zuten txalo artean. “Bihotz-bihotzez Usurbilgo Sareren izenean, Pili gogoratu nahi dugu”. Aipatu herri bilgunetik

nabarmendu zuten moduan, “presoen eskubideen borrokan Usurbilen eredu izan da, presoentzat sostengu”. “Besarkadarik beroena” helarazi nahi izan zien Usurbilgo Sarek, mobilizazioan bertan ziren Piliren senide eta lagunei.

Sareren deialdiak

Urriak 8 larunbata, Donostian:

- 11:00 Bulebarretik #IzanBidea dinamikaren azken kilometroak.
- 12:00 Pio XII-tik Illunbera manifestazio koloretsua.
- 13:00 Ekitaldia eta jaigunearen irekiera Illunben.
- 15:30 Jaialdia Illunben: Kontzertuak: Belako, Rotten XIII, Esne Beltza, Su Ta Gar, Zea Mays, Liher, Doctor Deseo, Eñaut Elorrieta, Josu eta Gari (Hertzainak), Dupla, McOnak, Trikidantz, Ttek elektrotzaranga, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus...
- Txikientzako gunea, Porrotxekin eta aisialdi ekintzekin.
- Jan/edatekoa txosnetan.

Urriak 28 ostirala, Usurbilen:

- 20:00 Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan. Deitzailea: Sare.

Yolanda Arrietak irabazi du 41.

Lizardi Saria

Mari Gogorri eta hamazazpi berri idazlan egitasmoari esker jaso du saria. Epai-



mahaiaren esanetan, idazlanak egitura eta hizkuntza oso landuak izateaz aparte, ahozko haur literaturaren tradizioak edaten du. Narrazioko elkarrizketa ugari eta biziak “erritmoa eta bizitasuna” ematen diote kontakizunari, epaimahaikideen arabera eta horrenbestez, “hizkuntzarekin jolas egiteko narrazio aparta” dela ondorioztatu dute Mari Gogorri eta hamazazpi berri.

Sari banaketa ekitaldia 2023ko apirilaren 2an egingo dute Zarautzen.

Asier Azpiroz,

Bertsolari

Txapelketa Nagusian

Lehenengo faseko azken saioa igande honetan jokatu da Lizarran. Los



Llanos kulturagunean seikote hau arituko da kantari: Asier Azpiroz zubiatarra, Aitor Bizkarra, Imanol Uria, Iñigo Mantzizidor ‘Mantxi’, Maialen Akizu eta Unai Gaztelumendi bertso-lariak. 17:00etan hasiko da saioa.

Usurbil Döner Kebab
USURBIL



843 675 265
603 609 183

USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK

GAR
GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15

reformas@reformasmonroy.com

KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia, terraza. 688710916.

Alokairuan

Kaxkoan etxebizitza alokatzen da denboraldi motzetarako. Bi logela, egongela, sukalde-jangela balkoiarekin eta komuna. Altzariz hornitua eta sartzeko prest. TelefonoaWhatsApp-a: 657770131

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume batenentzako. 618032966

Usurbilen bizi den mutil gazte ukrainar batek gela bat alokatu beharra du. Urgentziazkoa da. 649 429 416

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugun bikotea gara. Lan

egonkorrekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratu eta erroldatzea beharrezkoa. 622396941 (Patricia).

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Kurtsoan zehar arratsalde zaurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

Klase partikularrak emateko prest daudenen zerranda osatzen ari da Udarregi Ikastola. Interesa dutenek 943 36 12 16 telefono zenbakira dei dezatela.

Zerbitzaria behar dugu asteburuetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jate-txean. 666 671 444

Lan eskaerak

Kurtsoan zehar klase partikularrak emateko edota haurrak

zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta haurrak zaintzen esperientziaduna. 679219805 (Irati)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrak emateko lan bila nabil. 688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lanetan zein igeltsiritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

Emakumeak orduka zaintzeko lan bila nabil goizetan, arratsaldetan zein gauetan. 609 647 728

Umeak zaintzeko eta ingelesa irakasteko prest dagoen neska

gaztea. 644 716 739

Adinekoen eta haurren zaintza lana edota etxeko garbiketarako egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Umeak zaintzeko prest dagoen gazte euskalduna. Esperientzia badaukat. 688 73 43 44

BESTELAKOAK

Giltza batzuk aurkitu nituen irailaren 28an, Zumarte ondoko parkean. Udaltzaingoa daude.

Gutxi erabilitako lau gurgil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

600 litroko altzairu herdoilgaitzeko (acero inoxidable) kupela daukagu salgai. Sagardoarekin erabilitakoa: 620024663.

San Estebanen (Zabale inguruan) betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Galdu dituenak Udaltzainetan dauzka jasotzeko.

Heriotzak

Francisco Agudo Nevado
Irailaren 25ean hil zen,
76 urterekin.

**Heriotzak**

Jose Javier Mendo Miguel
Urriaren 1ean hil zen,
79 urterekin.

**Eskubaloi partidak
Oiaro kiroldegian****Urriak 8 larunbata**

■ 13:00 Jubenil neskak:

-Urbil-Usurbil KE
-Tolosa CF Eskubaloia

■ 16:15 Kadete mutilak:

-Saizar- Usurbil KE

-Leizaran Urduña

■ 18:00 Jubenil mutilak:

- Saizar-Usurbil KE

- Leizaran Javier Zeramikak

■ 18:30, Senior mutilak

Eibarren, Ipuruan:

- Mecalbe Eibar Eskubaloia B

- Saizar-Usurbil KE

■ Neskak:

Bera Bera Urdina-Usurbil KE

(ordua eta eguna zehazteke)

Pilota partidak**Usurbilgo frontoian****Urriak 7 ostirala**

■ 19:00 Usurbilgo frontoian

Kadeteak eskuz binaka (Gipuzkoa 2. Maila):

-Pagazpe

-Behar Zana

Goardiako farmaziak

Osteguna 06 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 07 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 08 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 09 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Astlehena 10 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 11 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 12 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Osteguna 13 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 14 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 15 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 16 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda urria

07 ostirala

- Aginagako jaiak, Ume eta Gazteen Eguna.

08 larunbata

- Aginagako jaiak, Gaupasa Eguna.

09 igandea

- Endika Abril errebote txapelketako bi finalurrekoak. Zubieta Noizbait taldearekin lehiatuko da, 10:30etik aurrera Zubietako errebote plazan.

Aginagako jaiak, azken txanpan

Urriak 7, ostirala:

Ume eta Gazteen Eguna

- 10:00 Umeen jolasen hasiera.
- 13:00 Umeen bazkaria frontoi txikian.
- 16:00 Puzgarriak.
- 17:30 Txokolate banaketa eta buruhan-diak.
- 19:00 Patata tortilla txapelketa.
- 21:00 Gazte afaria Aginaga Sagardotegian. Sarrerak Arraten (sare sozial bidez eskatutakoak gordeko dira). Urriaren 1era arte izango da izena emateko aukera.
- 23:00 Txosna irekiera.
- 23:30 Kontzertuak Eliza Zaharrea: Ameba eta Rodeo taldeak.

Urriak 8, larunbata:

Gaupasa Eguna

- 17:00 Txan Magoa.



Ostiral honetan, Ameba eta Rodeo zuzenean Eliza Zaharrea. Argazkia: Lurdes Hueta.

- 18:00 Txosna irekiera.
- 18:00 Andoni Ollokiegi.
- Ondoren, poteo girotua.
- 00:00 Kontzertuak frontoian: Gozategi eta Fan&Go.
- 03:30 Dj Bull Eliza Zaharrea, goizaldera arte.
- 08:00 Errefus bilketa.
- Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.

Datorren astean hasiko da Garagardo Azoka

Urriaren 13an osteguna abiatuko da Garagardo Azoka eta urriaren 16ra arte egongo da zabalik Usurbilgo frontoian.

Antolakuntzatik aurreratu dutenez, jantokiaz eta sukaldeaz gain oholta bat ipiniko dute frontoian. Beraz, musika-erentzako tartea ere izango da egun horietan. Garagardo eskaintza zabala izango da eta jatekoa bertan erosi edota etxera eramateko aukera egongo da.



Usurbil Futbol Taldeak eta Usurbil Kirol Elkartek antolatu dute garagardo azoka.

Datozenak

Urriaren 22an, Booktegiren 5. urtemuga jaialdia

- 10:00 Poesia-itzulera: NOAUA! K.E. eta Usurbilgo udal liburutegia.
- 11:30 Solasaldia: Maialen Alozi, Oihana Arana Cardenal, Ibon Larrazabal, Amaia Arakistain.
- 16:00 "Habiak" emanaldia: Anari eta gonbidatuak.
- 17:00 Solasaldia: Mikel Soto, Maite Darceles, Danele Sarriugarte, Bakartxo Iguaran.
- 18:00 Emanaldia: "Azken aurreko manifestua". Iraia Elias, Hatxe.
- 19:00 Solasaldia: Axel Luzarraga, Irati Majuelo, Aitziber Etxeberria Garro, Ana Galarraga.
- 20:00 Emanaldia: "Meza Nagusia". Uxue Alberdi, Amorante.
- Oharrak:
 - Itxaro Borda izango da jaialdiko anfitrioi. Musikaria, berriz, Xabi Strubell.
 - "Habiak" erakusketa Sutegiko erakustaretoan, urriaren 22tik 30era.

Informazio gehiago:

booktegi.eus



txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Parti
Parti
Jateketa

bazkariak EGUNERO
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA

☎ 943 362725
☎ 688 690 361



Urriak 23, igandea

918 GAU

Filmaren
emanaldia

Ordua: 18:30.

Non: Sutegiko auditorioan
Nori zuzendua: helduei

sarrerak: aldeztatik salgai 6€tan
usurbilkultura.eus plataforman.
Bazkideek 4 €tan eskuratu ahal izango dute
sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.

noaua



BOOKTEGI JAIALDIA

urriak 22

POESIA-ITZULERA 10:00etan
GONBIDAPENA

Euskarazko literatura sustatzeko jaialdi honetan, euskal poema bat aukeratu eta beste batek aukeratutakoa irakurriaz osatuko dugun katean parte hartzeko gonbidapena da honakoa.

Eman izena Sutegi Liburutegian edo Noaua!ko bulegoan eta bidali zure poema ondorengo helbideetara (izena emateko azken eguna urriak 14):



biblioteka@usurbil.eus

elkartea@noaua.eus

noaua

Beste mundu bat posible da.

650
USURBIL
bizi

Aurkezpen ekitaldia

650 Usurbil Bizi

Turismo eredu berriaren proiektua eta webgunearen aurkezpena.

Ostirala 14

18:00etan

Mikel Laboa plazan



Usurbilgo
Udala

Usurbil, bestelako herri bat, beste mundu bat nahi duen bestelako bisitariarentzat!